

EKONOMIA ZIRKULARREKO NAZIOARTEKO ESTANDAR BERRIAK

Posted on 23/05/2024 by Naider

Category: [Albiste](#)

Tags: [Ekonomia zirkular baterantz](#), [Herramienta CICLO](#), [Herramientas de circularidad](#)

Negozio-eredu zirkularrak ezartzea funtsezkoa da egungo enpresa-testuinguruan, onura eta aukera ugari eskaintzen baititu. Paradigma berriari erantzuteko, [ISOk](#) Ekonomia Zirkularreko nazioarteko hiru estandar berri argitaratu ditu. ISO 59000 dokumentu-sortan jasotako estandar berri horien helburua da enpresen eragiketetan eredu zirkularrak txertatzeko **esparru, baldintza, gida eta laguntza-tresna harmonizatuak eskaintzea**.

Hauek dira onartutako hiru ISO arauak:

- **ISO 59004 - Inplementaziorako terminologia, printzipioak eta orientazioa.** Ekonomia zirkularra zer den definitzen du, eta ikuspegi, printzipio eta jarraibide orokorrak partekatzen ditu, nola ezarri jakiteko eta garapen jasangarrian laguntzeko.
- **ISO 59010 - Negozio-ereduei eta balio-sareei buruzko orientazioa.** Bertan, ekonomia zirkularraren ezarpena errazteko negozioetara bideratutako zenbait jarraibide ezartzen dira.
- **ISO 59020 - Zirkulartasuna neurtzea eta ebaluatzea.** Zirkulartasuna eta haren eraginak neurtzeko eta ebaluatzeko ikuspegi egituratua eskaintzen du, adierazle estandarizatuetan eta metodo osagarrietan oinarrituta.

CICLO: Business Profile Profile NAIDERek sortu eta garatutako ikuspegi horiek txertatzen ditu bere erreferentzia-esparruan enpresei negozio-eredu zirkular baterako trantsizioaren erronka konplexuan laguntzeko.

